

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1781/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko azaroaren 15ekoa, funtsen transferentziek agindu-emaileen gainean atxikitzen duten informazioari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: « Reglamento (CE) nº 1781/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de noviembre de 2006, relativo a la información sobre los ordenantes que acompaña a las transferencias de fondos » (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 345/1 de 8/12/2006)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezzen)

1781/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko azaroaren 15ekoa,

**funtsen transferentziek agindu-emaielen gainean atxikitzen duten informazioari buruzkoa (Testu egokia
EEeri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertuta,

Batzordearen proposamena aztertuta,

Europako Banku Zentralaren ⁽¹⁾ irizpena aztertuta,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz ⁽²⁾,

Honako hau kontuan izanda:

(1) Funtsen transferentzien bitartez egiten diren diru beltzeko fluxuek kalteak eragin ditzakete finantza-sektorearen egonkortasunean eta ospean, eta mehatxatu egin dezakete barne-merkatua. Terrorismoak gure gizartearen oinarriak urratzen ditu. Delitugileek eta horien kideek ahaleginak egiten dituzte beren diru-sarrerak kriminalak ezkutatzeko edo xede terroristadun funtsen transferentziak egiteko; bada, horien ondorioz, larriki korapila daitezke funtsen transferentzien sistemaren sendotasuna, osotasuna eta egonkortasuna, eta finantza-sistema osoarekiko konfiantza.

(2) Eremu finantzario integratuak kapitalen zirkulazio askea dakar berekin, baina erkidego-mailan koordinazio-neurririk hartzen ez bada, kapitalen zurriztaileak eta terrorismoaren finantzatzaileak horretaz baliatu daitezke, beren delitu-jarduerak erraztasunez egiteko. Erkidegoaren jarduerak bermatu egin behar dute transferentzia telegrafikoei buruzko VII. Gomendio berezia (SR VII) modu uniformeaz ezartzen dela Europar Batasunean, eta, bereziki, bermatu behar dute ez dela diskriminaziorik egiten estatu kideen nazio-ordainketen eta estatu kideen arteko mugaz gaindiko ordainketen artean. Transferentzia telegrafikoei buruzko VII. Gomendio berezia, kapital-zuritzearen aurkako Nazioarteko Finantza Ekintzaren Taldearena (FATF/NFET), Parisko 1984ko G7aren goi-bileran onartu zen. Mugaz gaindiko funtsen transferentzien esparruan, estatu kideek bakarka eta koordinaziorik gabe jarduten badute, bertan behera gera daiteke EBko ordainketa-sistemen funtzionamendu egokia, eta horrek guztiak kalte larriak eragin diezaike barne-merkatuko finantza-zerbitzuei.

(3) Ameriketako Estatu Batuetan 2001eko irailaren 11n egiten ziren atentatu terroristen ondorioz, Kontseilu Europarrak berretsi egin zuen, 2001eko irailaren 21ean egindako bilkura berezian, terrorismoaren aurkako borroka oinarritzko xede bat dela Europar Batasunarentzat. Kontseilu Europarrak polizia- eta justizia-lankidetzari buruzko ekintza-plan bat onartu zuen, terrorismoaren aurkako borrokan nazioarteko neurri juridikoak garatzeko, terrorismo-jardueren finantziazioa prebenitzeko, aire-segurtasuna hobetzeko, eta gaiari buruzko politika guztien arteko koherentzia handitzeko. Kontseilu Europarrak ekintza-plan hori berrikusi zuen Madrilan 2004ko martxoaren 11an egindako atentatu terroristen ondoren, eta, orain, honako hau aurreikusten du: Erkidegoaren esparru legegilea FAFT/NFETren

¹ C 336 EO, 2005.12.31koa, 109. or.

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko uztailaren 6koa (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabe), eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko azaroaren 7koa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

bederatzi Gomendio berezien arabera egokitu beharra, hau da, terrorismoaren finantziazioaren aurkako bederatzi Gomendio bereziei erreparatuta, horrela, terrorismoari aurre egiteko eta lankidetzaz judiziala hobetzeko.

(4) Terrorismoaren finantziatioari aurre egiteko, neurri batzuk onartu dira pertsona, talde eta erakunde zehatz batzuen funtsak eta ekonomia-baliabideak izozteko; onartutako neurri horien artean daude Kontseiluaren 2580/2001 (EE) Erregelamendua ⁽³⁾ eta Kontseiluaren 881/2002 (EE) Erregelamendua⁽¹⁾. Era berean, finantza-sistema babestuko duten neurriak hartu dira, terroristen erabilerarako funtsen transferentzien eta ekonomia-baliabideen aurka. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentarauan⁽²⁾ hainbat neurri daude kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea helburutzat duten finantza-sistemaren erabilera okerrari aurre egiteko. Bestalde, neurri horiek hartuta ere, terroristek eta bestelako gaizkileek ordainketa-sistemetan sartzen jarraitzen dute, eta horrek beren funtsak mugitzeko aukera ematen die.

(5) Kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruzko nazioarteko planteamendu koherente bat abiaraztearren, gai horren inguruan egin diren garapen guztiak hartu behar dira kontuan Erkidegoan ekimen berriak egiterakoan; batez ere, terrorismoa finantziatzearen aurkako bederatzi Gomendio bereziak hartu behar dira kontuan, FAFT/NFETrenak, eta, bereziki, zazpigarrena (VII) eta interpretazio-ohar onetsia.

(6) Funtsen transferentziak aldiro jarraitzea bereziki garrantzitsua eta baliagarria izan daiteke kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko, ikertzeko eta detektatzeko. Beraz, agindu-emaileari buruzko informazioa ordainketen kate osoan igortzen dela ziurtatzeko, egokia litzateke sistema bat ezartzea, non-eta sistema horrek ordainketa-zerbitzuen emaileak behartu egiten dituen, funtsen transferentziekin batera, agindu-emaileari buruzko informazio zehatza eta esanguratsua ematera.

(7) Erregelamendu honen xedapenek ez dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentarauaren⁽³⁾ aplikazioan eraginik izango. Esate baterako, Erregelamendu honen xedeetarako jaso eta gorde den informazioa ez da merkataritza-xedeetarako erabiliko.

(8) Paperezko dokumentuak datu elektronikoko bilakatzera mugatzen diren pertsonak, eta ordainketa-zerbitzuen emaile batekin egindako kontratu baten arabera jarduten duten pertsonak ez dira erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartuko. Ez dira aplikazio-eremu horretan sartuko, halaber, ezaugarri hauek dituzten pertsona fisiko eta juridikoak: funtsak edo konpentsazio- eta likidazio-sistemak eskualdatzeko zerbitzuen baitan, ordainketa-zerbitzuen emailei soilik mezularitza-sistema bat edo bestelako laguntza-sistemaren bat ematen dioten pertsonak.

(9) Egokia da erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo uztea kapitalen zuriketarako edo terrorismoaren finantzaketarako arrisku txikia diren funtsen transferentziak. Horien artean, honako hauek daude: kreditu- eta kargu-txartelak; kutxazain automatikoetatik ateratako dirua; zordunketa zuzenak; txeke trunkatuak; zerga- edo multa-ordainketak; eta funtsen transferentziak, baldin eta agindu-emaile eta onuraduna, biak ere norberaren kontura dabiltzan zerbitzu-emaileak badira. Gainera, nazio bakoitzeko ordainketa-sistemen ezaugarri bereziak kontuan hartzearen, estatu kideek salbuespenak egiteko eskubidea izango dute transferentzia elektronikoa egiteko orduan; betiere, funtsen transferentziaren jarraipena egiteko aukera eman behar du, agindu-emaile nor den jakin arte. Estatu kideek erregelamendu honen arabera aplikatuko dute 2005/60/EE Zuzentarauan xedatzen den diru elektronikoa buruzko salbuespena; betiere, transferituriko diru-kopuruak 1.000 EURO baino txikiagoa izan behar du.

(10) Diru elektronikoa aplikatzen zaion salbuespena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/46/EE zuzentarauan⁽⁴⁾ zehazten denaren arabera, diru elektronikoko guztiari aplikatuko zaio, diru elektronikoko horren igorlea aipatu zuzentzarauko 8. artikuluan adierazten den salbuespen-egoeraren batean aurkitu zein ez.

³ L 344 EO, 2001.12.28koa, 70. or. Erregelamendu hau Batzordearen 1461/2006 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azkeneko (L 272 EO, 2006.10.3koa, 11. or.).

¹ L 139 EO, 2002.5.29koa, 9. or. Erregelamendu hau Batzordearen 1508/2006 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azkeneko (L 280 EO, 2006.10.12koa, 12. or.).

² L 309 EO, 2005.11.25koa, 15. or.

³ L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or. Zuzentzarau hau 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azkeneko (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1. or.).

⁴ L 275 EO, 2000.10.27koa, 39. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(11) Ordainketa-sistemen eraginkortasuna ez oztopatzearen, egiaztapen-baldintzak ezberdinak izango dira funtsen transferentziak banku-kontu batetik egiten diren ala ez kontuan hartuta. Xede terroristetarako egiten diren funtsen transferentziei aurre egiteko, identifikazio-eskakizun zorrotzegeiak jarritz gero, handitu egin daiteke erregelamentatik kanpo egiten den eragiketa-kopurua; horrenbestez, banku-kontu batetik abiatuta egin ez diren funtsen transferentzien kasuan, agindu-emailearen informazioa zehatza dela egiaztatuko da, baldin eta banakako funtsen transferentziak 1.000 EUROTİK gorakoak badira. Dena den, betetzekoak izango dira 2005/60/EE zuzentarauan xedaturiko betebeharrak. Banku-kontuen bitartez egindako funtsen transferentzien kasuan, ordainketa-zerbitzuen emaileek ez dute agindu-emaileari buruzko informazioa egiaztatzeko beharrik izango, baldin eta funtsen transferentziak 2005/60/EE zuzentarauan zehazturiko xedapen guztiak betetzen baditu.

(12) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2560/2001 (EE) Erregelamendua ⁽¹⁾ eta «Barne-merkatuan ordainketak egiteko esparru juridiko berri bat» izeneko Batzordearen Komunikazioa kontuan hartuta, Erkidego barruan egiten diren funtsen transferentzien kasuan nahikoa da agindu-emaileari buruzko informazio sinplifikatua ematea.

(13) Hirugarren herrialdeetan kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearren aurka jarduten duten agintari arduradunek helburu horietara bideratutako funtsen jarraipena egin ahal izateko, Erkidego barrutik Erkidego kanpora eginiko transferentzia guztietan agindu-emaileari buruzko informazio osoa adieraziko da. Agintari horiek eskura eduki behar dute agindu-emailei buruzko informazio osoa; horren helburua kapitalen zuriaketa edo terrorismoaren finantziarioa prebenitzea, ikertzea eta detektatzea besterik ez da.

(14) Agindu-emaile bakar batek funtsen transferentziak egin behar badizkie hainbat onuradunei Erkidego barrutik Erkidego kanpora, eta, transferentzia horiek merkeak izateko, lotekako transferentzia indibidualak dituzten fitxategiak baliatzea erabakitzen badu, modu bat xedatuko da transferentzia horiek soilik agindu-emailearen kontu-zenbakia adierazi edo identifikatzaile bakarra izan dezaten. Transferentzia-mota horiek egin ahal izateko, lotekako transferentzien fitxategiek agindu-emaileari buruzko informazio osoa jaso behar dute.

(15) Eragiketa susmagarriak identifikatzen laguntzeko, eta agindu-emaileari buruzko beharrezko informazioa funtsen transferentziekin batera dagoela egiaztatzeko, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak prozedura eraginkorraz erabili behar ditu, agindu-emaileari buruzko informazioa falta dela detektatzeko.

(16) Funtsen transferentzia anonimoak mehatxu larria dira terrorismoaren finantzaketarako; horregatik, egokia litzateke onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak egoera horiek saihestea edo zuzentzea, baldin eta agindu-emailearen informazioa falta dela edo informazio hori osoa ez dela badaki. Era berean, egokia litzateke agindu-emaileari buruzko informazio-kantitatea malgua izatea, arriskuaren araberakoa. Gainera, agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emailearen ardura da agindu-emaileari buruzko informazio zehatza eta osoa ematea. Agindu-emaileari zerbitzua ematen dion pertsona Erkidegotik kanpo badago, handitu egin behar da bezeroarekin izan behar den prestasuna, eta, alde horretatik, 2005/60/EE zuzentzarauak xedatutakoa bete behar da, ordainketa-zerbitzuen emaileak mugaz gaindiko korrespondentekin dituen banku-harremanen esparruan.

(17) Agintari eskudunek zenbait jarraibide finka ditzakete, batetik, ordainketa-zerbitzuen emaileek egindako transferentzia guztiak ukatzeko, baldin eta zerbitzu-emaile horiek ez badute aldizkakotasunez ematen transferentziaren agindu-emaileari buruzko informazioa, eta, bestetik, ordainketa-zerbitzuen emailearekiko merkataritza-harremanak murrizteko edo deuseztatzeko. Jarraibide horiek erabakitzeko, bere egin behar dituzte arlo horretako jarraibide onenak, eta aintzat hartu behar dute FAFT/NFETren SR VII Gomendioak 1.000 EUROko edo 1.000 USDko muga bat finkatzeko baimena ematen diela hirugarren herrialdeei, agindu-emaileari buruzko informazioa bidaltzeko obligazioa ezartzeko, kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantziarioaren aurka eraginkortasunez borrokatzeko helburuaren kalterik gabe.

(18) Dena den, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak zaintza berezia egin behar du: arriskuak ebaluatuko ditu agindu-emaileari buruzko informazioa falta dela edo informazioa hori osatu gabe dagoela dakienean, eta eragiketa susmagarriei buruzko informazioa emango die agintari eskudunei. Hori guztia 2005/60/EE zuzentarauan zehazturiko informazio-betebeharren arabera, eta aplikatu beharreko neurri nazionalen arabera egingo du.

¹ L 344 EO, 2001.12.28koa, 13. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(19) Agindu-emaileari buruzko informazioa falta duten edo informazio osatugabea duten funtsen transferentzietan xedapenak aplikatzeko orduan, aintzat hartuko dira ordainketa-zerbitzuen emaileek dituzten betebeharrak, hau da, zuzenbide zibila, administratiboa edo penala betetzen ez duten funtsen transferentziak baliogabetzeko edo ukatzeko betebeharrak.

(20) Muga teknikoen ondorioz, gerta liteke ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak ez bidaltzea agindu-emaileari buruz jasotako informazio guztia; horrenbestez, ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak gorde egin beharko dute informazio guztia muga teknikoak alboratu arte. Muga tekniko horiek desagertu egin behar dute ordainketa-sistemak eguneratu bezain laster.

(21) Krimen-ikerketetan, beharbada ezin izango dira identifikatu krimenean parte hartu duten gizabanakoak edo horien datuak funtsen transferentzia originala egin eta hilabete edo urte asko pasa arte; horregatik, ordainketa-zerbitzuen emaileek gorde egin behar dituzte agindu-emailearen informazio-erregistroak, horrela, kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko, ikertzeko eta detektatzeko. Informazio-erregistroak epe jakin batean gordeko dira.

(22) Terrorismoaren aurka borrokatzeko egiten diren ekintzak bizkortzearen, ordainketa-zerbitzuen emaileek azkar erantzun behar dituzte agindu-emailei buruzko informazio-eskaerak, baldin eta eskaera horiek ordainketa-zerbitzuen emailearen estatu kidean kapitalak zurrizteko eta terrorismoa finantzatzeko jardueren aurkako borrokaren eskumena duten agentariak eginak badira.

(23) Agindu-emaileari buruzko informazio-eskaerei erantzuteko epea finkatzeko, agindu-emaileari ordainketa-zerbitzuak ematen dizkion pertsonaren estatu kideak xedatutako egun baliiodunen kopuruari erreparatuko zaio.

(24) Kapitalak zurriztearen eta terrorismoa finantzaztearen aurkako borroka garrantzi handia duela kontuan hartuta, estatu kideek disuasio-zigor eraginkorrak eta proportzionalak ezarri behar dituzte estatuko zuzenbidean, horrela, erregelamendu hau betetzen ez denean, horiek aplikatu ahal izateko.

(25) Erregelamendu hau betetzeko neurriak hartzeko, arau honek xedatutakoari erreparatuko zaio: Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak betetzeko prozedurak ezartzeko⁽¹⁾.

(26) Egoera hauek bizi dituzte Erkidegotik kanpo dauden hainbat herrialdek eta lurraldek: moneta-batasun bat partekatzen dute estatu kideren batekin; estatu kideren baten moneta-batasunean egotea lortu dute, edo, estatu kideren batek ordeztuta, Europako Erkidegoarekin moneta-hitzarmen bat sinatua dute; eta, estatu kidearen likidazio- edo ordainketa-sistemetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten ordainketa-zerbitzuen emaileak dituzte. Estatu kideen eta Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde horien arteko funtsen transferentzietan erregelamendu hau betearazteak kalte garrantzitsuak eragin ditzake Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde horietako ekonomietan; hori ez gertatzeko, egokia litzateke estatu kidearen eta Erkidego kanpoko herrialdearen edo lurraldearen arteko funtsen transferentziak estatu kidearen barruko funtsen transferentziak izango balira bezala tratatzea.

(27) Erregelamendu honek karitate-xedeetarako dohaintzetan eragin negatiborik ez izateko, estatu kideek aukera izango dute ordainketa-zerbitzuen emailei salbuespen bat egiteko: estatu kide horretako ordainketa-zerbitzuen emaile horiek ez dute agindu-emaileari buruzko informaziorik bilduko, egiaztatuko, erregistratuko edo bidaliko, baldin eta funtsen transferentziak 150 EURO baino txikiagoak badira, eta estatu kidearen barruan egiten badira. Salbuespen hori onartzeko, komeni da irabazi-asmorik gabeko erakundeek ere zenbait obligazio bete dezaten, horrela, estatu kideek bermatu ahal izateko salbuespen horrek ez diela biderik emango terroristei beren jarduerak finantzatzeko.

(28) Estatu kideek ezin dituzte behar bezala bete erregelamendu honen xedak eta, erregelamendu honen hedadura eta ondorioak direla-eta, xede horiek hobeto lortuko lirateke Erkidego-mailan; horrenbestez, Erkidegoak neurriak

¹ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hau 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen azkeneko (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hartzeko aukera izango du, Tratuaren 5. artikuluan emandako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horrek ezarritako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, helburu horiek lortzeko neurriak hartzea mugatzen da erregelamendu hau.

(29) Kapitalak zurtzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurkako borrokan planteamendu koherente bat egitearren, beharrezkoa da erregelamendu honen xedapen nagusiak eta gai honen inguruan nazioartean onartzen diren xedapenak egun berean betearazten hastea.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

I. KAPITULUA

XEDEA, DEFINIZIOAK ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua

Xedea

Funtsen transferentziek beren agindu-emailei buruz eman behar duten informazioa zehazteko arauak finkatzen ditu erregelamendu honek, eta helburua da kapitalen zuriaketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzea, ikertzea eta detektatzea.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu hau betetzean, definizio hau izango dute jarraian adierazten diren terminoek:

- 1) «terrorismoa finantzatzea»: funtsak ematea edo biltzea, 2005/60/EE zuzentarauaren 1. artikuluko 4. paragrafoan adierazten den zentzuan;
- 2) «kapitalak zurtzea»: intentziaz egindako jarduerak izanik, kapitalen zuriaketatzen hartzen direnak, 2005/60/EE zuzentzarauko 1. artikulua 2. edo 3. paragrafoen arabera;
- 3) «agindu-emailea»: banku-kontu baten titularra izan eta banku-kontu horretatik funtsen transferentzia bat egiteko agindua ematen duen pertsona fisikoa edo juridikoa; banku-konturik izan ezean, funtsen transferentzia bat egiteko agindua eman duen pertsona fisikoa edo juridikoa;
- 4) «onuraduna»: transferitutako funtsen azken onuraduna izango den pertsona fisikoa edo juridikoa;
- 5) «ordainketa-zerbitzuen emailea»: pertsona fisikoa edo juridikoa, funtsen transferentzien zerbitzua ematen duena;
- 6) «ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekaria»: ordainketa-zerbitzuen emailea, agindu-emailea edo onuraduna izan gabe, funtsen transferentziak egiteko prozesuan parte hartzen duena;
- 7) «funtsen transferentzia»: ordainketa-zerbitzuen emaile baten bitartez eta bitarteko elektronikoak erabilia, agindu-emaile baten izenean egindako edozein eragiketa; funtsen transferentzien helburua da, ordainketa-zerbitzuen emaile baten bitartez, onuradun baten eskura funtsak jartzea, agindu-emailea eta onuraduna pertsona bera izan zein ez;
- 8) «lotekako transferentziak»: igortzeko orduan elkartu egiten diren banakako hainbat funtsen transferentzia;
- 9) «identifikatzaile bakarra»: ordainketa-zerbitzuen emaileak finkaturiko letra-, zenbaki- eta sinbolo-konbinazio bat da, ordainketa- eta likidazio-sistemaren protokoloen, edo funtsen transferentziak egiteko erabiltzen den mezularitza-sistemaren arabera finkatua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Erkidego barruko ordainketa-zerbitzuen emaileek bidalitako nahiz jasotako funtsen transferentzia guztiei aplikatuko zaie erregelamendu hau, funtsen transferentzia zer monetatan egin den aintzat hartu gabe.

2. Ez zaie erregelamendu hau aplikatuko kreditu- edo kargu-txarteletatik egindako funtsen transferentziei, baldin eta:

a) onuradunak ordainketa-zerbitzuen emailearekin hitzartu badu funtsen transferentzia ondasunen eta zerbitzuen horniketarako ordaintzeko izango dela;

eta,

b) funtsen transferentziak identifikatzaile bakarra badauka, eta horren bidez agindu-emailerara arte kontrolatu badaiteke eragiketa.

3. Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko diru elektronikoz egindako funtsen transferentziei, baldin eta estatu kide batek erabakitzen badu 2005/60/EE zuzentarauko 11. artikuluko 5. paragrafoko d) idatz-zatian aurreikusitako salbuespena aplikatzea. Salbuespen hori aplikatzeko, transferitutako den diru-kopuruak 1.000 EURO baino txikiagoa izan behar du.

4. 3. paragrafoan xedaturikoa aintzat hartuta, erregelamendu hau ez zaie aplikatuko eskuko telefonoz, edo bestelako gailu digitalez edo informazioaren teknologiaz (IT) egindako funtsen transferentziei, baldin eta transferentziak aurrez ordaindu badira eta 150 EURO baino txikiagoak badira.

5. Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko eskuko telefonoz, edo bestelako gailu digitalez edo informazioaren teknologiaz (IT) egindako funtsen transferentziei, baldin eta transferentziak ondoren ordaintzekoak badira, eta:

a) onuradunak ordainketa-zerbitzuen emailearekin hitzartu badu funtsen transferentzia ondasunen eta zerbitzuen horniketa ordaintzeko izango dela;

b) funtsen transferentziak identifikatzaile bakarra badauka, agindu-emailea nor den jakin arte, jarraipena egin ahal izateko;

eta,

c) ordainketa-zerbitzuen emaileak 2005/60/EE zuzentarauko xedapenak betetzen baditu.

6. Estatu kideek aukera izango dute erregelamendu hau ez aplikatzeko funtsen transferentzia jakin batzuei; baldin eta transferentzia horiek onuradunaren banku-kontura egiten badira, estatu kidean bertan eta ondasun eta zerbitzuen hornidurak ordaintzeko. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

a) onuradunari ordainketa-zerbitzuak eman dizkion pertsonak bete egin behar ditu 2005/60/EE zuzentarauko xedapenak;

b) onuradunari ordainketa-zerbitzuak eman dizkion pertsonak posible izan behar du, onuradun horren bidez eta erreferentzia-zenbaki bakarra erabilia, funtsen transferentziaren jarraipena egitea. Jarraipen horrek aukera eman behar du identifikatzeko onuradunak zer pertsona fisiko edo juridikorekin hitzartu duen ondasunen edo zerbitzuen horniketa;

eta,

c) transferitutako zenbatekoa 1.000 EUOKOA edo 1.000 EURO baino txikiagoa bada.

Salbuespen hori erabiliko duten estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote hala egingo dutela.

7. Erregelamendu hau ez zaie funtsen transferentziei aplikatuko, baldin eta:

2006/1781 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 345/1, 2006/12/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) agindu-emaileak bere banku-kontutik dirua ateratzen badu;
- b) onuradunak eta agindu-emaileak kargu-transferentziak egiteko baimena ematen badute beren banku-kontuen artean ordainketak egiteko; betiere, funtsen transferentziek identifikatzaile bakarra izan behar dute, horrela, pertsona fisikoen edo juridikoen jarraipena egin ahal izateko;
- c) txeke trunkatuak erabiltzen badira;
- d) funtsen transferentzien xedea herri-agintariei zergak edo multak ordaintzea bada, estatu kide baten barruan;
- e) funtsen transferentziaren agindu-emailea eta onuraduna, bakoitza bere aldetik jarduten duten zerbitzu-emaileak badira.

II. KAPITULUA

AGINDU-EMAILEARI ORDAINKETA-ZERBITZUAK EMATEN DIZKION PERTSONAREN BETEBEHARRAK

4. artikulua

Agindu-emaileari buruzko informazio osoa

1. Agindu-emailearen informazio osoa honako datu hauek osatzen dute: izenak, helbideak eta kontu-zenbakiak.
2. Agindu-emailearen helbidearen orde, posible izango da agindu-emailearen jaiotze-eguna eta -lekua, bezeroaren identifikazio-zenbakia, edo nortasun-agiri nazionala jartzea.
3. Agindu-emaileak ez badauka kontu-zenbakirik, haren orde, identifikatzaile bakarra emango du agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emaileak, horrela, eragiketa agindu-emailerara iritsi arte jarraitu ahal izateko.

5. artikulua

Funtsen transferentziekin batera eman beharreko informazioa eta erregistroen mantenimendua

1. Ordainketa-zerbitzuen emaileek bermatu egin behar dute, funtsen transferentziekin batera, agindu-emaileari buruzko informazio osoa ematen dela.
2. Agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emaileak, funtsak transferitu aurretik, agindu-emaileari buruzko informazio osoa egiaztatuko du iturri fidagarri eta independenteetatik lorturiko dokumentuen, datuen edo informazioaren arabera.
3. Banku-kontu batetik egindako funtsen transferentzien kasuan, informazioaren egiaztapena amaitutzat emango da, baldin eta:
 - a) agindu-emailearen identitatea banku-kontua ireki duenean egiaztatu bada, eta egiaztapen horretan jasotako informazio osoa behar bezala gorde bada, hau da, 2005/60/EE zuzentarauko 8. artikuluko 2. paragrafoan, eta 2005/60/EE zuzentaruaren 30. artikuluko a) idatz-zatian adierazten diren xedapenen arabera;edo,
 - b) agindu-emaileari 2005/60/EE zuzentaruaren 9. artikuluko 6. paragrafoko xedapenak betearazi bazaizkio.
4. Dena den, 2005/60/EE zuzentarauko 7. artikuluko c) idatz-zatia betetzekoa izango bada ere, banku-kontutik egiten ez diren funtsen transferentzien kasuan, transferitutako diru-kopurua 1.000 EURO baino handiagoa denean bakarrik egiaztatuko du agindu-emaileari buruzko informazioa agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emaileak; ez da

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horrela jokatuko, baldin eta transakzioa hainbat eragiketetan egiten bada eta horien artean loturaren bat dagoela uste bada, eta eragiketa guzti horien batura 1.000 EURO baino handiagoa bada.

5. Agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emaileak bost urtean gordeko du erregistroan agindu-emaileari buruzko informazio osoa, funtsen transferentziekin batera eman beharrekoa.

6. artikulua

Erkidego barruko funtsen transferentziak

1. 5. artikuluko 1. paragrafoko xedapena betetzeko izango bada ere, agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emailea eta onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emailea Erkidego barruan badaude, nahikoa izango da funtsen transferentziek agindu-emailearen kontu-zenbakia edo identifikatzaile bakarra edukitzea, horrela, eragiketen jarraipena egin ahal izateko, agindu-emailea nor den jakin arte.

2. Dena den, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak hala eskatzen badu, agindu-emaileari ordainketa-zerbitzuak ematen dizkionak agindu-emaileari buruzko informazio osoa eman beharko dio onuradunaren zerbitzu-emaileari, azken horren eskaria jaso eta hiru egun balioduneko epean.

7. artikulua

Erkidego barrutik Erkidego kanpora egiten diren funtsen transferentziak

1. Onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emailea Erkidego kanpoan badago, hari egindako funtsen transferentziek agindu-emaileari buruzko informazio osoa edukiko dute.

2. Agindu-emaile bakar batek loteka bidalitako transferentzien kasuan, onuradunak baliatutako zerbitzu-emaileak Erkidego kanpoan badaude, 1. paragrafoa ez zaie aplikatuko lotekako transferentzietako transferentzia indibidualei, baldin eta loteari dagokion fitxategian informazio hori eman bada, eta transferentzia indibidualek agindu-emailearen kontu-zenbakia edo identifikatzaile bakarra badute.

III. KAPITULUA

ONURADUNARI ORDAINKETA-ZERBITZUAK EMATEN DIZKION PERTSONAREN BETEBEHARRAK

8. artikulua

Agindu-emaileari buruzko informazioa falta dela detektatzea

Onuradunari ordainketa-zerbitzuak ematen dizkion pertsonak detektatu egin behar du, funtsen transferentzia egiteko erabili den mezularitza-sistemaren, edo ordainketa- eta likidazio-sistemen protokolei erreparatuta, ea sistema horiekin bateragarriak diren karaktereak edo sarrerak erabili diren funtsen transferentziari dagozkion informazio-eremuak betetzeko. Ordainketa-zerbitzuen emaileak prozedura eraginkorrak erabili behar ditu agindu-emaileari buruzko informazio hau falta dela detektatzeko:

a) 6. artikuluan xedaturiko informazioa, baldin eta agindu-emaileari ordainketa-zerbitzuak ematen dizkion pertsona Erkidego barruan dagoela egin bada funtsen transferentzia;

b) 4. artikuluan xedaturiko agindu-emaileari buruzko informazio osoa, edo, beharrezkoa bada, 13. artikuluan xedaturikoa, baldin eta agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emailea Erkidego kanpoan dagoela egin bada funtsen transferentzia;

c) 4. artikuluan xedaturiko agindu-emaileari buruzko informazio osoa, baldin eta agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emailea Erkidego kanpoan dagoela egin bada lotekako transferentzia; informazioa lotekako transferentzia bakoitzeko emango da, eta ez lotea osatzen duten transferentzia bakoitzeko.

9. artikulua

Agindu-emaileari buruzko informazioa falta duten edo informazioa osorik ematen ez duten funtsen transferentziak

1. Funtsen transferentziak jasotzerakoan, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emailea konturatzen bada erregelamendu honetan eskatzen den agindu-emaileari buruzko informazioa falta dela edo informazioa ez dela osoa, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak transferentzia atzera bota behar du edo, hala egin ezean, agindu-emaileari buruzko informazio osoa eskatu. Dena den, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak bete egingo ditu kapitalen zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aplikagarri zaizkion arau edo administrazio-xedapen guztiak, batez ere 2580/2001 (EE) eta 881/2002 (EE) erregelamenduak, 2005/620/EE zuzentaraua eta nazio barruko betearazpen-neurriak.

2. Ordainketa-zerbitzuen emaile batek ez badu aldizkakotasunez ematen agindu-emaileari buruzko informazioa, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak neurriak hartuko ditu: lehenik eta behin, informazioa bidali ez dion ordainketa-zerbitzuen emaile horri funtsen transferentzia guztiak ukatu aurretik, ohartarazpen bat igorriko dio, edo epe bat finkatuko dio eskatutako informazioa bidal diezaion; neurri horiek ez badute emaitzarik ematen, ordainketa-zerbitzuen emaile horrekin merkataritza-harreman guztiak murriztea edo ukatzea erabaki dezake onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak.

Onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak egoera hori jakinaraziko die kapitalak zurtzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurka diharduten agintari eskudunei.

10. artikulua

Arriskuei erreparatuta egindako ebaluazioa

Onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak ikusten badu funtsen transferentziaren batek edo harekin lotutako eragiketek ez dutela agindu-emaileari buruzko informaziorik ematen edo informazio hori osoa ez bada, susmagarritzat joko du funts transferentzia edo eragiketa; eta faktore horri erreparatuta erabakiko du, 2005/60/EE zuzentarauaren III. kapituluko xedapenei jarraiki, egoera horren berri eman behar dien ala ez kapitalak zurtzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurka diharduten agintari eskudunei.

11. artikulua

Erregistroak gordetzea

Onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileak bost urtez gordeko ditu agindu-emaileari buruz jasotako informazio guztiaren erregistroak.

IV. KAPITULUA

ORDAINKETA-ZERBITZUEN EMAILE BITARTEKARIAK DITUEN BETEBEHARRAK

12. artikulua

Transferentziarekin batera emandako agindu-emaileari buruzko informazioa atxikitzea

Ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak bermatu egin behar dute funtsen transferentziari atxikitzen zaiola funtsen transferentziarekin batera ematen den agindu-emaileari buruzko informazioa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

13. artikulua

Muga teknikoak

1. Agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen emailea Erkidegotik kanpo badago eta ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekaria Erkidego barruan badago beteko da artikulua hau.
2. Funtzen transferentziak jasotzerakoan, ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak ez badaki erregelamendu honek agindu-emaileari buruz eskatzen duen informazioa falta dela edo informazio hori ez dela osoa, ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak muga teknikoak dituen ordainketa-sistema bat erabili ahal izango du onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileari funtsen transferentziak igortzeko; horrenbestez, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileari ez zaio funtsen transferentziekin batera agindu-emaileari buruzko informazioa bidaliko.
3. Bestalde, funtsen transferentziak jasotzerakoan, ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak baldin badaki erregelamendu honek agindu-emaileari buruz eskatzen duen informazioa falta dela edo informazioa ez dela osoa, muga teknikoak dituen ordainketa-sistema bat erabiliko du, soil-soilik kasu honetan: ordainketa-zerbitzuen emaileari informazioa falta dela edo informazio hori osoa ez dela jakinarazten badio. Jakinarazpen hori egiteko, horri buruz informazioa ematen duen mezularitza- edo ordainketa-sistema bat, edo ordainketa-zerbitzuen bi emaileek onartutako edo hitzartutako bestelako prozesuren bat erabil dezake.
4. Ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak muga teknikodun ordainketa-sistema bat erabiltzen badu, agindu-emaileari buruz jaso duen informazio guztia igorriko dio onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileari, azken horrek informazio hori eskatzen badu. Hiru egun baldioduneko epea izango du informazio hori emateko, informazioa osoa izan zein ez.
5. 2. eta 3. paragrafoek araututako kasuetan, ordainketa-zerbitzuen emaile bitartekariak bost urtez gordeko du jasotako informazio guztia.

V. KAPITULUA

BETEBEHAR OROKORRAK ETA BETEARAZPEN-ESKUMENAK

14. artikulua

Laguntzeko betebeharra

Ordainketa-zerbitzuen emaileek bete-betean eta berandutu gabe erantzungo diete, emailea dagoen estatuko zuzenbide nazionalak araututako baldintzak betetz, estatu horretan kapitalak zuzentzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurka diharduten agintari eskudunek egindako informazio-eskaerei, funtsen transferentziek haien agindu-emaileari buruz atxikitzen duten informazioari eta horien erregistroei dagokienez.

Nazioko zigor-zuzenbidea eta funtsezko eskubideen babesa aintzat hartuta, kapitalen zuzentzearen eta terrorismoaren finantziario prebenitzeko, ikertzeko eta detektatzeko soilik erabiliko dute informazio hori agintari eskudunek.

15. artikulua

Zigorak eta jarraipena

1. Estatu kideek erregelamendu hau betetzen ez dutenei aplikatuko zaien zehapen-erregimena finkatuko dute, eta beharrezko neurri guztiak onartuko dituzte erregelamendu hau beteko dela bermatzeko. Zehapen horiek disuasio-zehapen eraginkorrek eta proportzionalak izango dira. 2007ko abenduaren 15etik aurrera aplikatuko dira.
2. Estatu kideek 1. paragrafoan aipatzen den zehapen-erregimen horren jakinarazpena egingo diote Batzordeari, eta horiek aplikatzeaz arduratuko diren agintari eskudunak nortzuk izango diren ere jakinaraziko diote, gehienez ere, 2007ko abenduaren 14a baino lehen; horrez gain, informazio horrek gerora izan ditzakeen aldaketa guztiak jakinaraziko dizkiote, berandutu gabe.

2006/1781 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 345/1, 2006/12/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Estatu kideek agintari eskudunei eskatuko diete erregelamendu hau beteko dela bermatzeko neurriak hartzeko eta eraginkortasunez ikuska dezatela betetzen den ala ez.

16. artikulua

Komitea

1. Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantziakomitearen laguntza jasoko du Europako Batzordeak. 2005/60/EE zuzentarauak xedatzen du komite hori sortu beharra (hemendik aurrera, "Komitea" esango zaio).

2. Paragrafo honetarako igorpenak egiten diren guztietan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, baina, betiere, 8. artikulua xedatutakoa beteko da, eta prozesu horren arabera onarturiko betearazpen-neurriek ez dituzte aldatuko erregelamendu honen oinarritzko xedapenak.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan adierazitako epea hiru hilabetekoa izango da.

VI. KAPITULUA

SALBUESPENAK

17. artikulua

Hitzarmenak Erkidegotik kanpoko lurralde edo herrialdeekin

1. Tratutuko 299. artikulua xedatzen du Batzordeak baimena eman diezaiekeela estatu kideei, Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurraldeekin hitzarmenak egiteko, estatu kideen arau nazionalak aplikatuta —Tratutuko artikulua horrek zenbait salbuespen dakartzkio erregelamendu honi—. Hitzarmen horien helburua izango da funtsen transferentziak baimentzea estatu kidearen eta Erkidegotik kanpoko herrialdearen edo lurraldearen artean, funtsen transferentziazat hartuak izan daitezten estatu kide horietan. Hitzarmen horiek honako kasu hauetan bakarrik onartuko dira:

a) Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde horrek moneta-batasun bat partekatzen badu kasuan kasuko estatu kidearekin; Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde hori estatu kide horren moneta-eremuan badago; edo, Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde horrek moneta-hitzarmen bat sinatu badu Europako Erkidegoarekin, estatu kideren batek ordezkaturia;

b) Erkidegotik kanpoko herrialde edo lurralde horretako ordainketa-zerbitzuen emailek estatu kidearen ordainketa-eta likidazio-sisteman parte hartzen badute, zuzenean nahiz zeharka;

eta,

c) erregelamendu honetan xedatzen diren arau guztiak betearazteko eskatzen badie Erkidego kanpoko herrialde edo lurralde horrek bere jurisdikzioko ordainketa-zerbitzuen emailei.

2. Estatu kide batek 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera hitzarmen bat egin nahi badu, Batzordeari bere nahia jakinaraziko dio eta beharrezko informazio guztia emango dio.

Estatu kideren baten eskaera jasotzen badu Batzordeak, estatu kidearen eta Erkidegotik kanpoko herrialdearen edo lurraldearen arteko funtsen transferentziak, behin-behinean, estatu kidearen barneko funtsen transferentziazat hartuko dira, harik eta, artikulua honetan xedaturiko prozesuari jarraiki, erabaki bat hartzen den arte.

Batzordeak uste badu estatu kideak ez diola beharrezko informazio guztia eman, estatu kidearekin harremanetan jarriko da eskaera egin eta ondorengo bi hilabeteetan, eta zer informazio falta den informazioa adieraziko dio.

Batzordeak estatu kidearen eskaera baloratzeko behar duen informazio guztia jasotzen duenean, estatu kideari jakinarazpena egingo dio hilabeteko epean, eta eskaera gainerako estatu kideei igorriko die.

2006/1781 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 345/1, 2006/12/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 2. paragrafoko 4. lerrokadan aipatzen den jakinarazpena egin eta ondorengo hiru hileko epean, Batzordeak erabaki egin behar du estatu kide horri artikuluko 1. paragrafoan xedatzen den hitzarmena egiten baimentzen dion ala ez; eta, horretarako, 16. artikuluko, 2. paragrafoan aipatzen den prozesua hartuko du kontuan.

Edonola ere, lehenengo lerrokadan xedatzen denaren arabera erabaki bat onartuko da, Batzordeak eskaera jaso eta hemezortzi hilabeteko epean.

18. artikulua

Estatu kide bateko irabazi-asmorik gabeko erakundeei egiten zaizkien funtsen transferentziak

1. Estatu kideek 5. artikuluko xedapenak betetzetik salbuetsi ahal izango dituzte beren lurraldean ezarrita dauden ordainketa-zerbitzuen emaileak, baldin eta funtsen transferentziak irabazi-asmorik gabeko erakundeei egiten bazaizkie, eta erakunde horien jarduerak karitate-, erlijio-, kultura-, hezkuntza-, gizarte-, zientzia- edo elkartasun-helburuak badituzte. Horretarako, irabazi-asmorik gabeko erakunde horiek beren finantza-egoera aurkezteko eta kanpo-auditoria bat egiteko betebeharra izango dute, edo, bestela, horien jarduerak gainbegiratuko ditu erakunde publiko batek edo zuzenbide nazionalak onarturiko autorregulazio-erakunde batek. Funtsen transferentziek 150 EURO baino txikiagoak izan behar dute, eta kasuan kasuko estatu kidearen barruan egin behar dira.

2. Artikulu honetan xedatutakoaz baliatu nahi duten estatu kideek jakinarazi egingo diote Batzordeari zer neurri hartu dituzten, 1. paragrafoan aurreikusitako aukera betetzeko. Horrez gain, honako hauek emango dizkiote Batzordeari: salbuespena aplikatuko zaien erakundeen zerrenda; erakundeen azken kontrola egiten duten pertsona fisikoek izenak; eta, zerrenda eguneratzeko erabiliko duten prozesuaren azalpen bat. Kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurka lan egiten duten agintari eskudunei ere emango zaie informazio hori.

3. Salbuespena aplikatu behar zaien erakundeen zerrenda eguneratua emango diete estatu kideek beren lurraldean lan egiten duten ordainketa-zerbitzuen emailei.

19. artikulua

Berrikuspen-klausula

1. Gehienez ere, 2011ko abenduaren 28an, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari; txosten horretan, erregelamendu honen ebaluazio juridiko eta ekonomiko oso bat egingo da, eta, beharrezkoa bada, baita erregelamendua aldatzeko edo indargabetzeko proposamen bat ere.

2. Txosten horretan, bereziki, honako hauek berrikusiko dira:

a) 3. artikulua aplikazioa: batetik, diru elektronikoaren gehiegizko erabileraren inguruan lortutako esperientziari dagokionez, 2000/46/EE zuzentarauaren 1. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; eta, bestetik, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko asmoz, berriki garatu diren ordaintzeko beste moduei dagokienez. Diru elektronikoa gehiegikeriaz erabiltzen dela ikusten bada, Batzordeak proposamen bat aurkeztuko du erregelamendu hau aldatzeko xedez.

b) 13. artikulua araututako muga teknikoaren aplikazioa, agindu-emaileari buruzko informazio osoa ez igortzeko aukera ematen diona onuradunaren ordainketa-zerbitzuen emaileari. Ordainketen eremuko garapen berriek aukera ematen badute muga tekniko horiek gainditzeko, Batzordeak erregelamendu hau aldatzeko proposamen bat egingo du. Proposamen hori egiteko, kontuan hartuko ditu ordainketa-zerbitzuen emaileen gastuak.

VII. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

20. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean erregelamendu hau, baina ez 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak eta estatu kideetan zuzenean aplikatzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2006ko azaroaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

P. LEHTOMÄKI